

UDAL BARRIAREN ERAKETAREN AKTA.

Bi mila eta hamabosteko ekainaren hamahiruan hamarretan, Udaletxeko Bilkura Aretoan 2015eko maiatzaren hogeita lauko Toki Hauteskundeetan hautatutako zinegotziak bertaratu dira:

Angel M^a Acillona Martinez
Aitzbea Yarto Goiri
Elixabete Arriaga Calvo
Aitziber Ibinarriaga Delgado
Aintzane Enzunza Zorrozu
Haizea Bengoetxea Andikoetxea
Gartzen Agirregoitia Abad

Hautatutako zinegotzien gehiengo osoa izanik, udal barria eratzeko saio publikoan bildu dira, ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195 eta hurrengo artikuluan ezarritakoaren arabera.

MAHAIAREN ERAKETA

Saioa hastean, Adin Mahaia eratzeari ekin zaio, hautatutakoen artean zaharrena eta gazteenak osatuko dute eta mahaiko Idazkaria Udalbatzako izango da, halaxe xedatu baita ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195.2 artikuluan. Eratu da adineko mahaia eta Angel M^a Acillona Martinez eta Haizea Bengoetxea Andikoetxeak osatu dute, zinegotzi zaharrenak eta gazteenak hain zuzen ere, Idazkaria Carlos Laucirica Careaga izanik.

Ondoren, mahaiburuak aginduta Idazkariak Udal berriak eratzeko aplikatu behar diren xedapenak irakurri ditu, horien artean ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 195. Artikuluan agertzen direnak.

Adineko mahaiko kideek aurkeztutako kredentzialak egiaztatu dituzte.

Kredentzialak onartu ostean eta zinegotzi bakar batek ere ez duenik bateraezintasunik aipatu, Adineko Mahaiak UDALBATZA ERATUTZAT JO DU. Honako hauek osatuko dute:

Angel M^a Acillona Martinez
Aitzbea Yarto Goiri
Elixabete Arriaga Calvo
Aitziber Ibinarriaga Delgado
Aintzane Enzunza Zorrozu
Haizea Bengoetxea Andikoetxea
Gartzen Agirregoitia Abad

Udalbatza eratuta, zinegotziek kargua hartu ahal izateko apirilaren 5eko 707/79 Errege Dekretuan ezarritakoa (HOALOaren 108.8 artikulua) bete behar da, zinegotzi guztiek betetzen dute.

ALKATEA HAUTATZEA

Ostean, idazkariak Adin Mahaiaren aginduz, Alkatea hautatzeko arauak irakurri ditu.

Euren zerrendetan agertzen diren Alkate izateko hautagaiak honako hauek dira:

Angel M^a Acillona Martinez
Aintzane Enzunza Zorrozuza

Esku altzatuaren bidez egin da bozketa eta ondoren, botoak zenbatu dira, hauxe izan da emaitza:

Angel M^a Acillona Martinez, lau (4) boto
Aintzane Enzunza Zorrozuza, hiru (3) boto

Ondorioz, zinegotziak zazpi (7) dira eta lau (4) zinegotzik osatzen dute legezko gehiengo osoa, horrenbestez, Angel M^a Acillona Martinez jauna hautatu dute Alkate, mahaiburuak, alkate izendatu du.

Kargua onartu du eta indarrean dauden betebeharrak eta gainerako hizbaketak zin egin ondoren, Angel M^a Acillona Martinez Jaunak hartu du mahaiburutza.

Bilera hau deitzeko xedea bete da eta goizeko hamarrak eta hogeian Alkate jaunak bilera bukatutzat jo du, nik, Idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.